

34. IRADOKIZUNA: PRIBATU BATEK MEZU ELEKTRONIKOZ

DATA: 2018/05/02

Herriko nekazal lurrak, Aretxa/den, balio estrategiko handiko nekazal lurra legez izendatuta dagoena, bere horretan uztea eta "industrial" kalifikazioa izateko zuena, aldatzea eta kentzea, horrek dakarkion gainartifizia/izazioagatik, eta nekazaritzarako lur eremu aberatsa murriztu eta galduko litzatekeelako. Garapen ikuspegi hori zaharkituta dagoelako eta guztiz desorekatua de/ako Lezama moduko herri txiki batentzat. Gainera, patrimonioa babestu behar de/a dio abantze honek, eta gure patrimonio aberatsena LURRA da; ez lur "eraikigarria", bizitza ematen duen lurra baizik, ekosistema oso bati eusten diona. Gure identitatea, azken finean. Ikusita inguruan badagoela industriarako erabili diren guneak eta gaur egun abandonatuta edo itxita daudenak, uste dut berrerabili daitezkeela lur berriak okupatu barik. "Protección de ámbitos de interés natura/[stico" esten zaion horri, bertan dago, zaindu dugulako eta zaindu behar dugulako. Aipatzen da txostenean nekazal lurrak eta bertako basoak esplotazio ikaragarria jasan izan dutela azken urteetan urbanigarritasunagatik, eta sano errekurso natural gutxiago gelditzen direla /ehen sektorerako eta baita NATURA berarentzat ere. Horregatik eskatzen dut Aretxaldeko LURRAK nekaza/ balio handiko lurrak izaten jarraitu dezatela. Bestalde, planifikatutako etxe-bizitza kopuruaren aurre-ikuspenak handiegiak izan ziren; ikusi dugu urte hauetan etxe-bizitza berririk ez de/a eraiki eta eskaerak ere $\geq$ datozela bat egindako planifikazioarekin. Populazioa ez da handitu. Horregatik eskatzen dut kopuru hori beharrian errealei egokitzea eta datu berrietan murrizketa horiek agertzea. Eta egingo direnak, etxe- bizitza sozia/ak izan daitezela, herritarron eskura egoteko modukoak. Basogintzari dagokionez, norabide bakarreko ustiaketa geldiaraztea eskatuko nuke, gure herriko paisaia guztiz a/datu due/ako eta basoen izana desagertarazi due/ako. Produktibitatea neurri batean ondo dago, baina beste modu batekoa izan beharko luke. Posible da kalitatezko egurgintzara dedikatzea bertoko espezieak /andatzuz eta ez urte gutxiko probetxurako etekinak /ortu nahi izateagatik gure lurra, errekek, ura, bizimodua, paisaia... hipotekatu. Horregatik uste dut LPPak kontutan izan behar ditue/a basoak babesteko ildo zehatzak eta galarazi gaur egun monolandaketarako erabiltzen diren espezie kaltegarriak, ez ditut aipatuko bistan daudelako.